

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA	Mota: Hautazkoa
Ikasgaia: Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta	Kronograma: 2. lauhilekoa
Kodea: 27966	Hizkuntza: Euskara/Gaztelania
Ikasgaiaren deskribapena: Hautazko ikasgai bat da, Erizaintzako Gradua tituluaren seigarren seihilekoan ematen dena. Gaztelaniaz eta euskaraz ematen da, eta ikasleak badu aukera behar diren gaitasunak garatzeko zaurgarritasun-egoera berezian dauden pertsonen beharrak artatzen laguntzeko, eguneroko bizitzako funtsezko jarduera garatzeko laguntza behar dutelako, autonomia handiago lortzen laguntzeko eta herritar moduan dagozkien eskubideak erabat gauza ditzaten laguntzeko.	ECTS kredituak: 4,5
Sartzeko baldintzak: Bat ere ez	Kurtsoa: 3. maila

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
Ikasgaiaren arduraduna Susana Cariñanos Ayala	945 219003	susana_carinanos@ehu.eus
Irakasleak Yaiza Martínez Gómez Ana Fernández Virto Beatriz Amador Cabañero Antonio Caridad de los Ríos Paula Casas Martín		

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Hausnarketa egitea *autonomia*, *desgaitasuna* eta *mendekotasuna* kontzeptuen esanahiaren inguruan, bizi-zikloaren etapetako osasun-alterazioak aztertuz, autonomian laguntzea edota mendekotasuna prebenitzea ahalbidetuko duten ingurune faktoreak identifikatzeko.
- G2. Mendekotasuna baloratzeko gakoak identifikatzea, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa (MBB) aplikatuz, Autonomia Sustatzeko eta Mendetasuna Prebenitzeko Legearen onuradun izan daitezkeen egoerak antzemateko.
- G3. Zenbait baliabide aztertzea ikasgelako saioen eta programatutako bisiten bidez, koordinazio soziosanitarioaren maila eta mendekotasun-egoeran dagoen pertsonak parte hartzeko eta autonomia izateko duen eskubidea sustatzen duten aukerak ezagutzeko.
- G4. Mendekotasunaren arloan esku hartzeko proiektu baten oinarriko diseinua egitea, esperientzia soziosanitario handia duen profesional baten gidaritzapean eta haren laguntzarekin, erizaintzan graduatutako pertsonaren enplegu-aukerak handitzeko helburuaz.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Behar bezala identifikatzen ditu *urritasuna*, *desgaitasuna* eta *mendekotasuna* terminoak.
- IE2. Inguruneko faktoreak eta horiek pertsonaren funtzionaltasunean dituzten ondorio positiboak/negatiboak ezagutzen ditu.
- IE3. *Autonomia* kontzeptuaren askotariko esanahien araberrako gogoeta egiten du.
- IE4. Espainian mendekotasun-egoerei arreta emateko dagoen lege-esparrua eta Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa (MBB) ezagutzen ditu.
- IE5. Aztertu beharreko kasu baten mendekotasun-balorazioa egiten du.
- IE6. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeari zuzendutako baliabide soziosanitario baten bisitan parte hartzen du.
- IE7. Autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko baliabide soziosanitario baten edota laguntza pertsonaleko produktuen beharra arrazoitzen du.
- IE8. Bilaketak egiten ditu datu-base batean (Medline OVID bidez).
- IE9. Mendekotasuna duen pertsonaren behar soziosanitarioak antzematen eta justifikatzen ditu.
- IE10. Autonomia sustatzeko oinarrizko esku-hartze baten proiektua egiten du.

EDUKIAK

I. UNITATEA: DESGAITASUNA

II. UNITATEA: MENDEKOTASUNA ETA HAREN BALORAZIOA ESPAINIAN

III. UNITATEA: ARRETA SOZIOSANITARIOA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI

GAI-UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	EBALUAZIO-ORDUAK	BISITA-ORDUAK
I	Susana Cariñanos Ayala	5	2	1	0
II	Susana Cariñanos Ayala	2	2	1	0
III	Susana Cariñanos Ayala	5	13	4	3
GUZTIRA		12	17	6	3

METODOLOGIA

Kasuaren metodoa (MdC) erabiliko da ikasgaiari. Ikaskuntza-prozesuan, ikasleak egoera erreal bati aurre egin behar dio. Prozesu horretan, ikaslea bera da ardatz eta gidari, eta arrazoinamendua eta gaitasun kritikoa hobetzen ditu. Ikasgaia garatzeko, ikasleak konpromisoa hartu behar du lan-erritmo presentzialari eta ez-presentzialari eusteko, bai eta eskola guztietara joateko konpromisoa ere (absentzia guztiak justifikatutako arrazoiengatik izango dira).

Ikasgaiak zenbait jarduera presentzial izango ditu, besteak beste:

- **Eskola magistralak:** klase teorikoak talde handian, teoria irakasteko.
- **Mintegiak:** irakasleak zuzendutako jarduera dinamikoak, ikaskuntza esanguratsua eta parekoen arteko elkarlana sustatzen dutenak; jarduera horietan, irakasleak entzuten, erantzuten, zuzentzen eta argitzen du, eta ataza nola egin erakusten du, ikasleen etengabeko ebaluazioa egiteaz gain.
- **Bisita** zentro soziosanitarioetara (eskuragarritasunaren arabera).
- **Ebaluazio-jarduerak;** esaterako, test motako galdetegiak, saio plenarioak...

Eskolak edo ebaluazio-jarduerak ezin badira aurrez aurre eman, edo ezinbesteko arrazoiren bat dela-eta bertan behera geratzen badira, eskolak urrunetik emango dira Unibertsitatearen baliabideak erabilita. Gida honetako jardueretan eta ebaluazio-irizpideetan egiten diren aldaketa guztiak behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaizkie ikasleei, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ezarritako irizpideei jarraituz.

LAN PRESENTZIALA (38 ORDU)			
Klase magistrala	Mintegia	Bisitak zentroetara	Ebaluazioa gelan
12	17	3	6

LAN PRESENTZIALA (74,5 ORDU)		
Bakarkako lana		Talde-lana
Irakurgaiak	Jardueren prestaketa	Jardueren prestaketa
20	30	24,5

GUZTIRA	
ECTS	4,5
ORDUAK	112,5

EBALUAZIO-SISTEMAK

Bi ebaluazio-sistemetako edozeinetan (jarraituan eta amaierakoan) ikasgaia gainditzeko, beharrezkoa izango da ebaluazio-jarduera bakoitza bere balioaren % 50arekin edo gehiagorekin gainditzea, edo bestela, ikasleak ez du gaindituko.

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Kalifikatzeko tresnak eta ehunekoak:

- ENTREGATZEKOAK: % 60
- TEST MOTAKO GALDETEGIA: % 20
- SAIO PLENARIOAK: % 20

Ebaluazio jarraituko sistemaren barruan ebaluatutako ikasleek ikasgaiaren kalifikazioa 1. taulan jasotako irizpideei jarraituz lortuko dute

1. taula. Etengabeko ebaluazioko ohiko deialdiko ebaluazioa.

GAITASUNAK ETA IKASKUNTZAREN EMAITZAK	UNITATEAK	EBALUATUKO DEN JARDUERA	KALIFIKAZIOA
G1 E1-E3	I	1. entregatzekoa	2 puntu
G2 E4-E5	II	2. entregatzekoa	1 puntu
G3-G4	III	Test motako galdetegia	2 puntu
E6-E10		1. saio plenarioa	1 puntu
		2. saio plenarioa	1 puntu
		3. entregatzekoa	3 puntu
GUZTIRA			10 puntu

Ebaluazio-jarduerak 16. eta 23. aste akademikoen artean egingo dira. Aipatutako jarduerak egiteko datak, ebaluazio jarraituaren kasuan, ikaslearen koadernoan zehaztuko dira, eta hori ikasleen eskura egongo da eGelan ikasgaia ematen den lauhilekoaren hasieratik.

Ikasgaiaren kalifikazioa ebaluazio-jarduera bakoitzari dagozkion kalifikazioen baturatik aterako da. Nolanahi ere, ikasleek honako hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- 16. eta 23. aste akademikoen artean gainditu ez diren edo aurkeztu ez diren ebaluazio-jarduerak UPV/EHUk ohiko deialdirako eta ezohiko deialdirako ezarritako azterketa-epealdi ofizialean errekuperatu beharko dira.
- Errekuperatzeko salbuespenak “*Saio plenarioa*” izeneko bi ebaluazio-jarduerak izango dira. Ikasleak jarduera horietakoren batera joaterik ez badu (modu justifikatuan edo ez) edo jarduera horietakoren bat gainditzen ez badu, jarduerari esleitutako puntuazioa galduko du, eta ez du errekuperatzeko aukerarik izango.

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Edonola ere, ikasleek azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izateko eskubidea izango dute, ebaluazio jarraituaren sisteman parte hartu badute ere. Horretarako, ikasleak ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diola jakinarazi beharko dio idatziz. Horretarako, 9 asteko epea izango du, lauhilekoa hasten den egunetik kontatzen hasita (martxoaren 13ko 2017/1311 EHAren 8. artikulua).

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Kalifikatzeko tresnak eta ehunekoak:

- ENTREGATZEKOAK: % 60
- TEST MOTAKO GALDETEGIA: % 20
- AHOZKO AZTERKETA: % 20

Azken ebaluazioko sistemari jarraitu ahalko diote ebaluazio jarraituko sistemaren irizpideak betetzen ez dituzten ikasleak. Azken ebaluazioko sistemaren barruan ebaluatutako ikasleek 2. taulan jasotako irizpideei jarraituz lortuko dute ikasgaiaren kalifikazioa.

2. taula. Azken ebaluazioko sistemako ohiko deialdiko ebaluazioa.

GAITASUNAK ETA IKASKUNTZAREN EMAITZAK	EBALUATUKO DEN JARDUERA	PUNTUAK
G1	Ebaluatuko den 1. jarduera: 1. entregatzekoa	2
E1-E3		
G2	Ebaluatuko den 2. jarduera: 2. entregatzekoa	1
E4-E5		
G3	Ebaluatuko den 3. jarduera: Test motako galdetegia (2 puntu)	4
E6-E7	Ebaluatuko den 4. jarduera: Ahozko azterketa (2 puntu)	
G4	Ebaluatuko den 5. jarduera: 3. entregatzekoa	3
E8-E10		
GUZTIRA		10

Sistema honek ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko aukera ematen du, lau ebaluazio-jardueraren bidez (1. eta 2. ebaluazio-jarduerak, test motako galdetegia eta ahozko azterketa). Jarduera horiek azterketa-aldi ofizialean egingo dira (martxoaren 13ko 2017/1311 EHAren 8. artikulua). 5. ebaluazio-jarduera (ikaslearen koadernoko 3. entregatzekoari dagokiona) 16. eta 23. aste akademikoen artean egingo da, eta gainerako ebaluazio-jarduerak egiten diren egun berean entregatu beharko da, azterketa-aldi ofizialean. Azken ebaluazioko sisteman ikasgaia gainditzeko, beharrezkoa izango da ebaluazio-jarduera bakoitza bere balioaren %50arekin edo gehiagorekin gainditzea (ikusi 2. taula), edo bestela, ikasleak ez du gaindituko. Ikaslea ez bada egun ofizialean aurkeztan ebaluazio-jardueretara, «Ez aurkeztua» kalifikazioa izango du deialdi honetan.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ohiko deialdia gainditu ez duten eta aurkeztu ez diren ikasleek ezohiko deialdia dute ikasgaia gainditzeko. Ezohiko deialdiko ebaluazioa UPV/EHUK ezarritako azterketen epealdi ofizialean egingo da. Ohiz kanpoko deialdiko ikasleak ohiko deialdian aukeratu duten ebaluazio-sistema beraren bidez ebaluatuko dira. Ikasleek kontuan izan behar dute:

- Ebaluazio jarraituko sistemako jardueretan lortutako emaitza positiboak (hau da, ebaluazio-proba batean %50etik gorako emaitza lortzea) irakaskuntza-gida honi dagokion ikasturtean zehar gordeko dira. Emaitza negatiboa eta errekuaratzeko zain dauden ebaluazio-jardueren balioaren batura ikasgaiaren kalifikazio osoaren %40 edo gehiago bada, nahikoa izango da ikasgaiaren azterketaren data ofizialean ez aurkeztearekin amaierako kalifikazioa «Ez aurkeztua» izateko deialdi honetan.
- Azken ebaluazioko sisteman, ohiko deialdiko ebaluazio-jarduera bakarra ez gainditzeak esan nahi du ikasleak gaitasun guztiak eta ikaskuntzaren emaitza guztiak ebaluatzen dituzten ebaluazio-jarduera guztiak (ikusi 2. taula) errepikatu behar dituela ezohiko deialdian. Ikaslea ez bada egun ofizialean aurkeztan ebaluazio-jardueretara, «Ez aurkeztua» kalifikazioa izango du deialdian.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Onartutako legea. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. 39/2006 Legea. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 299 zk. (2006/12/15).
- * Errege Dekretua. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezartzen duen mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 18568 zk. (2011/02/18)
- * Onartutako legea. 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, legeria zibil eta prozesala erreformatzen duena, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko. Estatuko Aldizkari Ofiziala 132. zk. (2021-06-03).
- * Aguado Santiago E, Ariño Jackson B, Blanco Bejarano F, Carlos Casal J, Fernández Fernández JA, Franco Martín MA et al.: Guía de orientación en la práctica profesional de la valoración reglamentaria de la situación de dependencia en personas con trastornos mentales graves, IMSERSO - Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua, Madril, urte ezezaguna.
- * Mendoza Láiz N. (koordinatzailea): Guía de orientación en la práctica profesional para la valoración reglamentaria de la situación de dependencia en personas con parálisis cerebral, IMSERSO - Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua, Madril, urte ezezaguna

Sakontzeko bibliografia

- * Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua (IMSERSO): *Atención a las personas en situación de dependencia. Libro Blanco*, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua, Madril, 2005.
- * Manual de uso para el empleo del baremo de valoración de la dependencia (BVD) profesional baloratzailleentzat (autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren ondorioz garatua).

Interneteko helbideak

- * Mendekotasunaren ataria
- * Osasun Mentaleko Arazoak dituzten Pertsonen eta haien Senitartekoen Elkarte. ASAFES
- * Alzheimer eta bestelako demenziak duten pertsonen lagun eta senideen elkarte. AFARABA
- * Autonomia Pertsonaleko Zentroa (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea - Araba)

OHARRAK

Ikasturtearen hasieran, ikasgaiarekin lotutako dokumentazioa jarriko da ikasleen eskura eGelan. UPV/EHUko Gradu Batzordeak 2018ko maiatzaren 24an hartutako Erabakiaren arabera, ikasgai hau gainditu behar da 4.mailako Practicumetan matrikulatu ahal izateko.

TUTORETZAK

Ikasgaiaren irakasleekin tutoretzak izateko eskabideak posta elektronikoko bidez izapidetu beharko dira dagokion irakaslearen bidez. Tutoretzak ez dira eskola presentzialetara joan ez izana ordezkatzeko modu bat eta irakaskuntzan laguntzeko tutoretzen prozeduraren bidez arautuko dira, EUEko webgunean aurkitu dezakeguna.

PLAGIOEN AURREKO ERANTZUNA

Ebaluazio jarraituan nahiz azken ebaluazioko sisteman, ebaluazio-proba edo jardueraren batean plagio bat identifikatzen bada, 0 puntuko kalifikazioa jasoko da plagioa detektatu den deialdian.